



# TXIKIEN XII. GUADALUPE IGOERA

## ARAUDIA

### 1. ARTIKULUA

Super Amara Bidasoa Atletiko Taldeko eskualdeko atletismo elkarteak, Hondarribiko Udalaren laguntzarekin, XII. Guadalupe Txikia antolatu du 2023ko Irailaren 2ko **goizerako**, larunbata. Txikienei zuzendutako lasterketa da eta Zumardiaren inguruan, harresiaren ondoan, ibilbide laua prestatu dugu Guadalupeko igoera lasterketa herrikoa baino lehen.

### 2. ARTIKULUA - PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Lasterketa honetan 1 eta 13 urte bitarteko edozein haurrek parte hartu ahal izango du. 2009 urtetik (hau barne) aurrera jaiotako haurrak. Txikienek beren gurasoek lagunduta irten ahal izango dute.

### 3. ARTIKULUA - INSKRIPZIOAK

Inskripzioak 2022/07/12an irekiko dira eta **erabat dohain** izango dira.

Inskripzioa on-line irekiko da helbide honetan: [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) . On-line inskripzioak irailaren 1an itxiko dira (13:30etan) eta proba egingo den egun berean izena eman ahal izango da irteera puntuan (Zumardia, Harresilanda) dortsalak agortu ez badira.

### 4. ARTIKULUA - DORTSALAK JASOTZEA

Irteeran, 8.30etatik 9.30tara. Antolakuntzak abisatzen du hobe dela garaiz egitea gero ilaran egon beharrik ez izateko, lasterketak ezin dira atzeratu eta.

## **5. ARTIKULUA - LASTERKETEN ORDUTEGIA ETA DISTANTZIAK.**

Haurren lasterketak ordu hauetan egingo dira: **9:30tan lehenengo lasterketa – 10tan azkenekoa.**  
**Lasterketa guztiak jarraian eta hurrengo ordenean:** (partaidetzaren arabera aldatu ditzakegu)

- **9h30** Haurrak mistoa (2021-2022) 150 metro (gurasoekin)
- Haurrak mistoa (2019-2020) 150 metro (gurasoekin)
- Mutilak (2017-2018) 150 metro
- Neskak (2017-2018) 150 metro
- Aurrebenjaminak mutilak (2016) 200 metro
- Aurrebenjaminak neskak (2016) 200 metro
- Aurrebenjaminak mutilak (2015) 200 metro
- Aurrebenjaminak neskak (2015) 200 metro
- Benjaminak mutilak (2013-2014) 430 metro
- Benjaminak neskak (2013-2014) 430 metro
- Alebinak mutilak (2011-2012) 860 metro
- Alebinak neskak (2011-2012) 860 metro
- Infantilak mistoa (2009-2010) 1300 metro

## **6. ARTIKULUA.- SARIAK.**

***Hamaiketako oparoa daraman poltsa SUPER AMARA-ren eskutik.***

## **7. ARTIKULUA - IRUDI ESKUBIDEAK ETA DATUAK LAGATZEA**

Parte hartzaile guztiek, izena ematen duten unetik, Araudi hau onartzen dute eta baimena ematen dute Bidasoa Atletiko Taldeak, bere kasa edo hirugarren erakunderen baten bitartez, izena ematen dutenentzako datu pertsonalak eta proban zehar jasotako argazkiak, bideoak eta abar informatikoki erabil ditzan, kirola, sustapena edo alor komertziala soilik izango duen helburua lortzeko.

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzkoak, ezartzen duen bezala, parte hartzaileak fitxategi horietan sartzeko eskubidea edukiko du bere edukia partzialki edo osorik zuzendu edo ezabatzeko. Eskubide hau erabiltzeko idatziz eskatu beharko du Bidasoa Atletiko Taldeak duen helbidean. (Ramon Iribarren kalea, 4 behea atzealdean, 20304 Irun)